

50 afrikar hizkuntzatik gora gure kaleetan

Asiakoak berriz hamalau, Europakoak hogeita bederatzi eta Amerikakoak bederatzi. Ehundik gora hizkuntza entzun daitezke Hego Euskal Herrian. Halako datuak eskaini ditu Unesco Etxeak eta Ikuspegik egindako ikerketak.

ONINTZA ENBEITA

BELEN URANGA eta Xabier Aierdik aurkeztu zuten Bilbon *Hizkuntzak eta Immigrazioa* izeneko liburu-txostena. Maiatzaren 23an ipini zuten mahai gainean Unesco Etxeak eta Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokia) elkarrekin egindako ikerketaren emaitza, eta jadanik buru askotatik pasatutako datua egiaztatzen du txostenak: egun, hizkuntza asko eta asko hitz egiten direla Hego Euskal Herrian. Ehundik gora katalogatu dituzte ikerketaren egileek.

Ikerketa horren helburua Hego Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak identifikatzea izan da. Horretarako etorkinekin zuzenean behar egiten duten hainbat erakunderekin harremanak estutu zituzten ikertzaileek, eta hizkuntzari zuzenean edo zeharka dagozkion hainbat ondorio atera dituzte. Urangak berak azaldu zuenez, “bizipen gogorrak” izaten dituzte etorkin gehienek, eta ez zaie batere erraza gertatzen helitzen diren herrialdeetan integratzea. Gainera, integrazioaz hitz egiten dugunean etorkinek gure hizkuntza, kultura... jasotzeaz hitz egiten dugu gehienetan. Ahaztu egiten zaigu haiek ere zerbaitekin datozena, eta ikerketaren egileek esan dutenez, etorkinek “ontzat jotzen dute” eta eskertzen dute bertakoek euren hizkuntzarekiko interesa agertzea.

Edozelan ere, guztiak ez dira hizkuntza esperientzia berdinarekin etortzen: batzuek euren herriko hizkuntza ofiziala baino ez dute ekartzen, beste batzuk hizkuntza bat baino gehiagorekin etortzen dira, hizkuntza handiak



Saiatzen gara etorkinak euskarara hurbiltzen, batzuetan beraien errealitate linguistiko konplexua kontuan hartu gabe. Argazkian, Errenteriako euskaltegiko ikasle taldea.

zein txikiak ekartzen dituzte eta batzuk oso harro mintzatzen dira euren hizkuntza ez-ofizialetan. Beste batzuek ezkutatu egiten dute euren herrian ere ofiziala ez den hizkuntza. Herrian ikasitako hizkuntzez gain, migrazio prozesuan ere hizkuntzak ikasten dituzte. “Hona heldu baino lehen, beste leku batzuetatik pasatzen dira, eta hizkuntza horiek ere ikasi egiten dituzte askok”, esan zuen Urangak.

Afrikarrek hizkuntza aniztasun handia mantentzen dute. Europa izango da akaso, nazio bakoitzeko biztanleek hizkuntza ofiziala baino gordetzen ez duten leku bakarra. Izan ere, ikerketaren arabera, estatu bakoitzeko hizkuntza bakarra ekarri dute

Europako etorkinek gutxi gorabehera. Garrantzitsua dena da, 100dik gora hizkuntza horietako asko eguneroko komunikazio-tresna direla Hego Euskal Herrian. “Aniztasun horrek ohar-tarazi behar du hizkuntza guztiek dutela nortasuna eta baita alderdi komunikatiboak eta sinbolikoak ere”, Urangaren hitzetan.

Azken batean, ikerketaren egileek ere onartu dute aurrera begira gero eta gehiago sakondu beharreko lana dela hau. Etorkinak etorri eta finkatu ahala, hizkuntza eta nazionalitateak gehitu egingo direlako. Beraz, lan honek erakusten diguna da, elkarbizitzaren ikasi behar dutela gure hizkuntzak eta datozkion beste guztiek. Horretarako

diziplina anitzeko curriculumak, ezta-baida eta lantaldeak, euskara arretaz tratatuko duten politikak... beharrezkoak direla uste dute Unesco Etxeak eta Ikuspegik.

Kitxua, aimara, guaraniera...

66 estatutako etorkinengan ehun eta gehiago hizkuntza identifikatu dituzte. Berez, estatistikak ematen duena da, etorkin bakoitzak hizkuntza bat eta erdi dakizkiela, baina ez da erreala hori. “Kontinenteen arabera, oso errealitate ezberdinak ikusi ditugu”, azaldu zuen Urangak. Amerikan, esate baterako, 1.000 hizkuntza amerindiar baino gehiago daude egotez. Bada, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan bizi diren amerikarrek europar jatorriko lau hizkuntzez gain –ingeleza, frantsesa, gaztelania eta portugesa–, bost hizkuntza amerindiar hitz egiten dituzte: kitxua, ketxua, aimara, guaraniera eta mapudungua (maputxea ere deitzen zaio).

Ipar Amerikan 200 hizkuntza daude identifikatuta. Hala ere, populazioaren zati handiak ingeleza baino ez du egiten eta 10.000 lagunaren artean hitz egiten dituzte gainerako hizkuntzak.

“Guk aurkitu ditugun hizkuntzak hizkuntza amerindiarrik ezagunenak edo hedatuak dira. Normala behar luke hemen horiek ikusteak. Ez gintuzke harritu behar gaztelaniaz gain, beste hizkuntza bat dakitela jakiteak”, gaineratu du Urangak. Dena den, bai EAEn eta bai Nafarroan zenbat etorkin latinoamerikar dauden kontuan izanda, bertako hizkuntza gutxi agertu dira. Gaztelaniak bere errua izango du horretan ziurrenik. Izan ere, hemengo hizkuntza ofizialetako bat norbere heritik ekartzeak asko errazten die komunikazioa, eta horretara jotzen dute gehienek. Euskararen eta hizkuntza amerindiar ez-ofizialen kalterako. Txostenak azaltzen duenez, “hizkuntza-gehiengo batek, gutxiengo nazional batek eta etorkinen gizarteek”,

topo egiten dute gurean. Oreka aurkitu ezean, gaztelania izango da irabazteko ezer izango duen bakarra.

Europako 24 estatutatik 29 hizkuntzarekin

Europar jatorriko etorkinen artean 24 estatu eta 29 hizkuntza bereizi dituzte. Gehienak hizkuntza ofizialak dira, estatu bakoitzeko bana. Baina badira beste batzuk ere: erromintxela, kalmykera (Errusia), katalana, galegoa, mingrelia eta suanera (Georgia). Urangak aitortu zuen hizkuntza gutxitu edo ez ofizial gehiago identifikatzea espero zutela. Halaber, Europar onartu gabeko hizkuntza ez-ofizialak badira, eta askotan hiztunek gurago izaten dute estatuko partaide direla esan, kultura gutxitu batekoak direla esatea baino.

Hizkuntza-gehiengo batek, gutxiengo nazional batek eta etorkinen gizarteek, topo egiten dute gurean.

Oreka aurkitu ezean, gaztelania izango da irabazteko ezer izango duen bakarra

Afrikarrek ekarri dituzte hizkuntza gehien

Kontinente beltza aberatsa da hizkuntzei dagokienez ere. 20 estatutatik etorritako etorkinekin egon dira ikertzaileak eta 50 hizkuntzatik gora aurkitu dituzte. Bertako hizkuntzekin batera kolonizatzaileek eramandako hizkuntzak hitz egiten dituzte: frantsesa, ingeleza, portuguesa eta gaztelania –azken hori Ekuatore Gineakoek–. Identifikatutako hizkuntza asko ez dira ofizialak, baina hiztun askok erabiltzen dituzte. Egia esan, kolonietako hizkuntzak dira ofizialak direnak. Bes-

teetako askok hizkuntza estatusik ere ez daukate, eta bakanen batzuk ez daukate hiztun kopuru handirik.

Berez, Europako kolonizatzaileek eramandako hizkuntzak eta arabiera dira Afrikan ofizialak. Hala ere, bertako bizilagunek jatorrizko hizkuntza asko gorde dituzte. Ikertzaileen ustez, gurean dagoen afrikar kopurua handitu ahala, hizkuntza kopurua ere gehitu egingo da. Dena dela, ez dituzte hizkuntza guztiak maila berean erabiltzen. Hemengoekin dituzten harremanetarako metropoliaren hizkuntza erabiltzen dute –frantsesa, ingeleza...–. Beste etorkin batzuekin euren inguruan gehien egiten den bertako hizkuntza erabiltzen dute, eta azkenik, komunitatearen hizkuntzan hitz egiten dute oso hurbileko duten jendearekin. Prestigioaren arabera mugatzen dute hizkuntza bakoitza noiz erabili, baina askok hainbat afrikar hizkuntza dakizkiete.

Asiako punjabera: 80 milioi hiztuneko hizkuntza ez ofiziala

Bederatzi estatutatik etorritako jendea aurkitu dute, eta 14 hizkuntza identifikatu dituzte: Irakeko arabiera, koreera, japoniera, mandarina, ingeleza, punjabera, saraikia, sherpera... Horietatik zortzi ofizialak dira jatorrizko lurraldeetan, baina besteak ez. Dena den, gure egoerarekin konparatuta oso urrun dauden zenbakiak ateratzen dira. Izan ere, punjabera ez da ofiziala Pakistanen, baina 80 milioi hiztun ditu. Kantonera txineraren familiako hizkuntza izan arren, Guangdong probintzian hitz egiten da batez ere eta 66 milioi hiztun ditu. Hala ere, Txinan mandarina da ofiziala. Sherperak etorkizun eskasagoa dauka. 130.000 hiztun ditu egun, eta Asiako beste hizkuntzen kopurua ikusita, gutxi dela dirudi. Hala ere, Asiatik etorritako etorkinak ez dira asko Hego Euskal Herrian eta horrek oso hizkuntza gutxiren berri eman du. ■

Babeslea: Hondarribiko Udala

